1HI-066/06-P05.
AHI-230/06-P05.

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO IDAZKARIAK.

TEODORO OLEA ITURREGI, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT Vitoria-Gasteizen abenduaren 14an Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 5/2006 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

CERTIFICO: Que, en la Sesión 5/2006 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 14 de diciembre, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, el siguiente acuerdo:

“ **1.** Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Moreda de Alava udalerriko b) motako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen espedienteak planteatzen duen lurralde-eredua baloratzea, honako hau kontuan izanik:

“ **1.** Valorar el Modelo Territorial planteado por el expediente de “Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal” tipo b), del municipio de Moreda de Alava de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos:

<u>I.- TXOSTENEAN LOTESLEAK DIREN ALDERDIAK:</u>

<u>I.- ASPECTOS CUYO CARÁCTER DE INFORME ES VINCULANTE:</u>

**1.- INGURUNE FISIKOA**

- Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planeko 1A-2 “Babes bereziko ingurune fisikoko elementuak” planoan islatzen dira Labraza errekaren urbazterretako eta Trimiño sakaneko baso-eremu interesdunak, eta babes bereziko eremutzat jo beharko dira haien interes naturalistikoagatik.

- Balio naturalagatik, basoaren babesagatik eta ingurumen-hobekuntzako eremuak babesteagatik babes berezia duten zonen grafiatzea zuzendu behar da; izatez, lurralde bat zona batean baino gehiagotan barne hartzea saihestuko da –berariazko erabilerako erregimenak dituzten

**1.- MEDIO FISICO**

- Las “áreas forestales de interés” que a lo largo de las riberas del arroyo Labraza y del barranco Trimiño se recogen en el plano 1A-2 “Medio Físico: Elementos de Especial Protección” del P.T.P. de Laguardia (Rioja Alavesa) han de calificarse como Zona de Especial Protección por su Interés Natural.

- Se ha de corregir el grafiado de las Zonas de Especial Protección por su Valor Natural, de Protección Forestal, y de Protección de Áreas de Mejora Ambiental, evitando -en cuanto que se trata de Zonas con regímenes de usos específicos- la calificación simultánea de un mismo territorio

zonak baitira–.

- Lur gaineko uren babes-eremuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean biltzen diren ur-ibilguen ibai-tarteen ondoriozko honako zuzenketak egin behar dira:

  - Udalerriaren hego-mendebaldea zeharkatzen duen errekaren bi aldeetan (identifikatu gabeko toponimia du eta 0 mailakoa da) 15 metroko zerrenda kalifikatu behar da lur gaineko uren babes-eremu gisa.

- Harrobi izan daitezkeen eremuak, bestalde, antolamendu-zona izango dira, eta ez baldintzatzaile gainjarri. Ildo horretan, eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazitakoaren arabera –8. kapitulua, 5.3.B.b3 idatz-zatia, eta 22. kapitulua, 2.2.a idatz-zatia–, eta Valdecarroko sakanean dagoen harrobi zaharraren ustiapenari berriro hasiera emateko ekimena dagoenez gero, Valdecarroko harrobia (Piedras Naturales Baigorri) ustiatzeko proiektuan eta leheneratzeko planean aintzat hartzen den ustiapenaren eta leheneratzearen esparrua jaso beharko da Arau Subsidiarioetan.

- Espedienteak higa daitezkeen eremuen eta urpean gera daitezkeen eremuen baldintzatzaile gainjarrien arauzko erregulazioa zehaztu beharko du, edo lurralde-antolamenduko tresnetan ezarritakora igorri beharko du –Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetara, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera–.

- Baldintzatzaile gainjarriaren izaerarekin San Cristobalgo inguruneko lurzoruak ere jaso beharko dira; izatez, IHOBEren lurzoruak polui ditzaketen jarduerak dituzten kokalekuen inbentarioan barne hartzen dira lurzoru horiek. Lurzoru horien arauzko erregulazioan

como perteneciente a más de una Zona.

- Al respecto de la Zona de Protección de Aguas Superficiales proceden las siguientes correcciones, derivadas de la tramificación hidráulica de los cursos de agua que se recoge en el P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V.:

  - Debe calificarse como Zona de Protección de Aguas Superficiales una banda de 15 m a ambos lados del arroyo sin identificar con toponimia (también de Nivel 0) que discurre al Suroeste del municipio.

- Las “Áreas Canterables” deben constituir una Zona de Ordenación y no un Condicionante Superpuesto. En este sentido, de acuerdo con lo señalado en las Directrices de Ordenación Territorial, Capítulo 8, apartado 5.3.B.b3 y Capítulo 22, apartado 2.2.a, y en cuanto que existe una iniciativa para reiniciar la explotación de la antigua cantera localizada en el Barranco de Valdecarro, las NN.SS. han de recoger el ámbito de explotación-restauración contemplado en el “Proyecto de Explotación y Plan de Restauración de la cantera de Valdecarro (Piedras Naturales Baigorri)” actualmente en tramitación.

- El expediente ha de concretar la regulación normativa de los Condicionantes Superpuestos “Áreas Erosionables” y “Áreas Inundables”, o bien remitir a la establecida en los correspondientes instrumentos de ordenación territorial (D.O.T., P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V.).

- Con carácter de Condicionante Superpuesto se deben recoger también los suelos del paraje de San Cristóbal incluidos en el “Inventario de Emplazamientos con Actividades Potencialmente Contaminantes del Suelo” de IHOBE. En la regulación normativa de los mismos se ha de

honakoa zehaztu beharko da: lurzoru horietan jardun aurretik, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa egin beharko da; horrela, arazoaren munta eta saneamendu-premiak baloratzeko aukera izango da, betiere ezartzen den erabileraren arabera, eta giza osasunaren gainean eta ekosistemen gainean eraginik ez sortzeko moduan.

especificar que cualquier actuación estará precedida de una investigación de la calidad del suelo que permita valorar la magnitud del problema y las necesidades de saneamiento en función del uso futuro que se establezca, de forma que se evite una afección para la salud humana y los ecosistemas.

**2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.**

**2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS**

- Ur-hornidurako eta hondakin-uren saneamenduko/arazketako sareei dagokienez planteatzen diren estrategien definizioan sakondu beharko du dokumentuak.

- El documento debiera profundizar en la definición de las estrategias que se plantean en relación a las redes de abastecimiento de agua y saneamiento/depuración de residuales.

- Udalerria zeharkatzen duten oinarrizko azpiegitura guztiak sistema orokor gisa grafiatu beharko dira.

- Deben grafiarse con carácter de Sistema General todas las infraestructuras básicas que atraviesan el término municipal.

- Era berean, herrigunean behar-beharrezkoa da aurreikusten diren hiri-zerbitzu guztien eskemak definitzea (gaur egun daudenak soilik islatzen baitira).

- Del mismo modo, en el núcleo de población se entiende necesaria la definición de los esquemas relativos a todos los servicios urbanos previstos (solo se recogen los existentes).

**3.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK**

**3.- EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES**

- Espedienteak justifikatu egin beharko du gutxienez 2.625 m² espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatzea. Horrela, Lurzoruaren Legean ezartzen den biztanleko 5 metro koadroko estandarra bete nahi da Arauen horizonte-urterako (2014. urterako).

- El expediente debe justificar la calificación como Sistema General de Espacios Libres de al menos 2.625 m2 para dar cobertura en el año horizonte de las Normas (2014) al estándar de 5 metros cuadrados por habitante establecido en la Ley del Suelo.

**4. BIZITEGI KOKALEKUAK ETA EKONOMIA JARDUEREN KOKALEKUAK**

**4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS**

**a) Hasieran aintzat hartzekoak**

**a) Consideración inicial**

- Espedienteak lursailen azterketa zehatzagoa jaso beharko luke, herrigunean hutsik dagoen bizitegi-ahalmena zuzen kalkulatu ahal izateko.

- El expediente debiera contener un mayor estudio parcelario, en aras de una correcta estimación de la capacidad residencial del Suelo Urbano vacante en el núcleo.

- Ildo beretik, Plangintza Geroraturako utzitako esparruetan kalifikazio orokorreko baldintzak zehaztu

- En similar sentido, en los ámbitos remitidos a Planeamiento Diferido se hace necesaria la concreción de las

beharko dira.

**b) Bizitegi-lurzorua. Bizitegi-kuantifikazioa**

- *Bizitegi-kuantifikazioaren arloan espedientearen aurkako txostena egin behar da, proposatutako hazkundearen ereduaren bizitegi-ahalmenak gainditu egiten baitu Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planaren irizpideak Moreda de Alava udalerrian aplikatzearen ondoriozko bizitegi-ahalmena. Horrenbestez, espedienteak berriro planteatu beharko du hazkunde-proposamena, eta Lurraldearen Zatiko Planak ezartzen duen 93 etxebizitzako gehieneko mugara egokitu beharko du.*

**c) Ekonomia-jardueretako lurzoruak**

- Hiri-lurzoruan OM.1 biltegi/hirugarren sektoreko zona mistoa mugatu nahi da. Zona misto horrek nekazaritza-erabilerarekin lotzen diren egungo instalazioak jasoko ditu, baita barneko eskaria asetzeko 2,92 ha-ko SUP.1 lurzoru urbanizagarri produktibo/industrialeko beste sektore bat sortzearekin lotzen diren instalazioak ere. Biltegi/hirugarren sektoreko zona mistoa hori mugatzeko proposamenen aldeko txostena egin da, bat baitatoz udalerriaren kategorizazioarekin –ekonomia-jardueretarako lurzoruaren garapen txikiko udalerria– eta ezarpen berriak eskualdeko poligonoetarantz bideratzeko estrategiarekin –horren alde egiten du Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak–.

**d) Ibaien eta erreken ertzen antolamendua**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaian eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (isurialde mediterraniarra) arabera eska daitezkeen eraikuntza-atzerapenak eta, hala badagokio, urbanizazio-atzerapenak zehaztu beharko dira dokumentuko esparruen

condiciones de la calificación global.

**b) Suelo residencial. Cuantificación Residencial**

- *Procede una valoración desfavorable del expediente desde la cuantificación residencial, en cuanto que la capacidad residencial del modelo de crecimiento propuesto excede de la que surge de la aplicación de los criterios del Plan Territorial Parcial de Laguardia (Rioja Alavesa) al municipio de Moreda de Alava. El expediente deberá por tanto replantear su propuesta de crecimiento, ajustándola al máximo de 93 viviendas establecido en el P.T.P.*

**c) Suelos de Actividades Económicas**

- Las propuestas referidas a la delimitación de la Zona Mixta Almacenes-Terciario OM.1 en Suelo Urbano recogiendo instalaciones existentes ligadas al uso agrícola y a la creación de un nuevo Sector de Suelo Urbanizable Productivo-Industrial SUP.1de 2,92 Has para satisfacción de la demanda endógena, son objeto de una valoración favorable por resultar coherentes con la categorización del municipio como de “Bajo Desarrollo del suelo para actividades económicas” y con la estrategia de canalización de las nuevas implantaciones hacia polígonos comarcales, por los que aboga el P.T.S. de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales.

**d) Ordenación de márgenes de ríos y arroyos**

- El documento ha de explicitar en las Fichas Urbanísticas de los diferentes ámbitos los retiros edificatorios -y en su caso de urbanización- exigibles según las determinaciones del P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V. (Vertiente Mediterránea). En

hirigintza-fitxetan. Zehazki, ur-ibilgu horren ohiko gehieneko uholdeen mugarekiko atzerapen hauek errespetatu beharko dira:

- Esparru garatuetan ertzak dituzten esparru mugakideetan, 12 metroko atzerapena eraikuntzetarako, betiere Lurraldearen Arloko Planeko A.4.31 planoaren arabera (OR.2, UE.3, UE.4, UE.6, UE.8, PERI.1, eta Trimiñorekin muga egiten duen SUR.1aren zatia –Labraza ibaiarekin bat egin aurretik–; azken bi esparru horietan garapen-plangintzan ezarritako zehaztapen gisa).

- Beste hirigintza-garapen batzuk hartzeko ahalmena duten esparruetan eta landa-esparruetan ertzak dituzten esparru mugakideetan, 15 metroko atzerapena eraikuntzarako eta 5 metroko atzerapena urbanizaziorako, Lurraldearen Arloko Planaren plano beraren arabera (UE.5, UE.9, PERI.2, eta SUR.1aren gainerako zatia, SUR.2 eta SNUS; azken lau esparru horietan garapen-plangintzan ezarritako zehaztapen gisa).

- 5 metroko atzerapena lursailen itxiturekiko, ur-ibilguekin muga egiten duten esparru guztietan.

- Uren Zuzendaritzak abenduaren 2an aldeko txostena egin du, betiere Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzaren txostenean adierazitako gomendioa betetzen bada.

concreto, habrán de respetarse con respecto a la línea de máximas avenidas ordinarias del curso de agua en cuestión los siguientes retiros:

- Un retiro de edificación de 12 m en los ámbitos lindantes con “Márgenes en Ámbitos Desarrollados” según grafiado del plano A.4.31 del P.T.S. (OR.2, UE.3, UE.4, UE.6, UE.8, PERI.1, y la parte del SUR.1 lindante con el Trimiño antes de su confluencia con el Labraza, en estos dos últimos ámbitos como determinación impuesta al planeamiento de desarrollo).

- Un retiro de edificación de 15 m y de urbanización de 5 m en los ámbitos lindantes con “Márgenes en Ámbitos con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos” y “Márgenes en Ámbito Rural” según grafiado del mismo plano del P.T.S. (UE.5, UE.9, PERI.3, la parte restante del SUR.1, SUR.2 y SNUS, estos cuatro últimos ámbitos como determinación impuesta al correspondiente planeamiento de desarrollo).

- Un retiro de cierre de parcela de 5 m, en todos los ámbitos lindantes con cursos de agua.

- La Dirección de Aguas, con fecha 2 de diciembre ha emitido valoración favorable con la recomendación expresada en el cuerpo del informe de la Dirección de Ordenación del Territorio.

II.- TXOSTENEAN LOTESLEAK EZ DIREN ALDERDIAK:

Behin betiko zehapenerako organo eskudunari honako puntuak aintzat hartzea komeni dela jakinarazi beharko zaio:

- Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planeko 1A-2 planoko baso-eremu interesdunetan zein Valdecarro sakanako espartzudian, komeni da aplikatzea habitat naturalen eta basa-

II.- ASPECTOS CUYO CARÁCTER DE INFORME NO ES VINCULANTE:

Indicar al órgano competente para la sanción definitiva la conveniencia de que se tengan en consideración los siguientes puntos:

- Tanto en las “áreas forestales de interés” del plano 1A-2 del P.T.P.de Laguardia (Rioja Alavesa) como en el espartal del Barranco de Valdecarro, se recomienda la aplicación de los

faunaren eta basa-floraren kontserbazioari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauaren 6. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatiak, baita habitat naturalen eta basa-faunaren eta basa-floraren kontserbazioaren bidez biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua ere.

apartados 2, 3 y 4 del artículo 6 de la Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres y Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.

- Dokumentuak udalerria zeharkatzen duten interes kulturaleko ibilbidearen errepideak eta bideak identifikatu beharko ditu, betiere Arabako Errioxako Lurraldearen Zatiko Planaren 43. artikuluan definitzen denaren arabera eta 3. planoan (ekipamendua, espazio libreak eta ondarea) eta 6. planoan (eredu biguna) grafiatzen denaren arabera.

- El documento debe identificar las carreteras y caminos que integran las rutas de interés cultural que atraviesan el municipio, según se definen en el artículo 43 y grafían en los planos 3 “Equipamientos, Espacios Libres y Patrimonio” y 6 “Modelo Blando” del P.T.P. de Laguardia (Rioja Alavesa).

- Trimiño sakanean (UE.6 unitatearen barruan) planteatzen den ekipamendu orokorreko eremua udalerriko Ekipamenduen Sistema Orokorrean barne hartu beharko litzateke, udalerri osoaren premiak asetzera bideratzen den aldetik.

- El Área de Equipamiento Genérico que se plantea en la ribera del barranco Trimiño (dentro de la UE.6) debiera integrarse en el Sistema General de Equipamiento del municipio, habida cuenta de que se orienta a satisfacer las necesidades de toda su población.

- Bizitegi-hazkundearen proposamena egokitu (murriztu) egin beharko da. Espedienteak orokorrean berraztertu beharko du bizitegi-hazkundearen eredua, eta jada kalifikatuta dagoen bizitegi-erabilerako hiri-lurzoruan hutsik dauden unitateak finkatu beharko ditu; hori, bestalde, bat dator hiri-garapenaren iraunkortasun-printzipioekin. Ildo horretan, plangintza geroratuko hiri-lurzoruko hiru esparruak (PERI.1, PERI.2 eta PERI.3) deskalifikatzea proposatzen da, baita bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarriko bi sektoreak ere (SUR.1 eta SUR.2).

- En cuanto que es necesario un sensible ajuste a la baja de la propuesta de crecimiento residencial, se entiende que el expediente debe reconsiderar de modo global el modelo de crecimiento residencial por el que aboga y centrarse en la consolidación de las unidades vacantes en el Suelo Urbano Residencial ya calificado, lo que por otro lado resulta coherente con los principios de sostenibilidad del desarrollo urbano. En este sentido, se propone la descalificación de los tres ámbitos de Suelo Urbano de planeamiento diferido (PERI.1, PERI.2 y PERI.3) y de los dos Sectores de Suelo Urbanizable Residencial (SUR.1 y SUR.2).

- Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri (SUNS) bat upategiren bat instalatu ahal izateko kalifikatzeko proposamenari dagokionez, eta Arau Subsidiarioek antolamendu-

- Respecto a la propuesta de calificación de un Suelo Urbanizable no Sectorizado SUNS para la eventual instalación de alguna bodega, habida cuenta de que las

jarraibiderik eskaintzen ez dutela kontuan hartuta eta gaur egun inolako zehaztasunik ez duen etorkizuneko aukera batekin baino arrazoitzen ez dela aintzat hartuta, ez da haren premia justifikatzen eta ezabatu egin behar da.

**2**. Arabako Foru Aldundiari igortzea Uren Zuzendaritzak eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostenak, ziurtagiri honen I. eta II. Eranskin gisa gaineratzen direnak.

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 14an.

NN.SS. no aportan ninguna pauta de ordenación y de que se motiva únicamente en un futurible sin ninguna concreción en el momento actual, se entiende que no se justifica su necesidad y que procede su supresión.

**2**. Remitir a la Diputación Foral de Álava los informes emitidos por las Direcciones de Aguas y Patrimonio Cultural que se acompañan como anexos I y II a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2006.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izta.: Teodoro Olea Iturregi.-Fdo